

ZERAINGO HERRI BATZARRA



Txosten honek 2015eko azaroaren 28an egindako Herri Batzarrean Udalak emandako informazioa jasotzen du

Sarrera

- Alkateak, etorritako guztiak agurtu eta etortzeagatik eskertuz herri batzarrari hasiera eman dio.
- Udalak bileraren dokumentazioa prestatu eta etxe guztietara bidaliko du honela etorri diren herritarrak lasaiago informazioa aztertzeko aukera izango dute eta etorri ez direnak herriko informazioa jasoko dute.
- Bileraren eskema:

1. Sarrera

2. Informazioa:

2.1 Zubi lanak

2.2 Aurrera begirako antolaketa

2.3 Epealdiko ekintzak

2.4 Udal kudeaketa

3. Galde erantzunak, elkarrizketa.

- Ikusten denez bi atal izan ditu Herri Batzarrak: udalaren aurkezpena eta elkarrizketa.
- Batzarra 11:30ean hasi eta 14:00etan amaitu da.
- Udalaren aurkezpena etenik gabe egin dugu ordu eta laurdenean eta ondoren beste ordu eta laurden izan dugu elkarrizketarako.
- Alkateak aipatu du galdera erantzunetarako tarte, elkarrizketa bat izatea nahiko luketela, hitza eskatuz eta labur, hitza ahalik eta jende gehienak hitz egin ahal izateko. Errespetuz eta edukazioz, moztu gabe, txandakatuz.
- Zertan ibili gara udalean epealdi honetan?
- Hiru ildo landu ditugu, zubi lanak, epealdiko festa eta ekintzak eta udal kudeaketa.

Ekintza nagusiak

MOTA	KOPURUA	OHARRA
Plenoak	4	Hilabete bakoitietan (hirugarren asteazkena arratsaldean)
Langileekin bilerak	7	Urriaren 19etatik aguazilekin astero
Proiektuetako bilerak	17	(Biomasa 7)
Hezkuntza	6	
Ongizatea	1	(Batzordea)
Hirigintza	9	(betelana 4)
Herriko tabernak	4	
Zerbitzu turistikoak	2	
Elkarteak	3	
Herritar norbanakoak	5	
Kanpo ordezkariak	40	
• Goi tentsioa	1	Ekitaldia
• Gestoriak	2	Gestoriak, kutxa
• Biolur	2	
Zubigintza	9	(4 ZHK, ...)
Kultur ekintzak	5	Bilera irekiak
	117	

36 urte eta gero talde berria dago udalean horregatik bereziki garrantzitsua da gaiak ondo ezagutzea eta ulertzea. Horregatik jende askorekin batzartu gara epealdi honetan. Bestalde, oso garrantzitsua izan da urtero egiten diren kultur ekintzak egitea. Kontuan izan behar da gainera ekainetik urrira bitartean izaten direla gehienak (sanjoanak, festak, azoka, kultur astea..).

I

Informazioa eman:

1.- ZUBI LANAK

Gure ikuspegitik egiten dugun balorazioa konpartitu nahi dugu zuekin:

- Jakina da aurten udalean aldaketa egon dela.
- Zailtasunak egon dira urte luzez erreleboarekin, udala osatzeko prozedurarekin eta hortik sortzen diren udal taldeekin. Herri guztia ordezkatzan al dute? Anitzak al dira? Emakumeak ordezkatura egon al dira?...
- Herri zerrenda bateratua bere horretan, teoriarik, interesgarria da eta begi onez ikusten dugu zeraindar askok.
- Praktikan ordea, ez dugu lortu herri bezala eraginkorra eta baliagarria izatea, eta aurten ez gara gai izan bideratzeko.
- Guk ez genuen udalaren ardura osoa espero, eta orain arte urte luzez udalean egon direnek ez zuten udalaren ardura osoa galtzea espero. Ezustekoa izan da.
- Guk presioak izan ditugu ez aurkezteko.
- Bakoitzak bere bidea jarraitu du elkarriketarik gabe, erabakiak hartuz.
- Guk aurrera egitea eta beste zerrendak atzera egitea.
- Bakoitzak hartutako erabakiaren inplikazioa bere gain hartu behar du, gure kasuan zein da inplikazio hori? udalaren ardura hartzea eta irtenbiderako lana egitea.
- Hor kokatu behar da ekainean egin genuen eskaintza: 7 zinegotzi ofizial ditu Zerainek eta horietatik 4 beharrezkoak dira udala osatzeko. Zein izan zen eskaintza hori? Guk 4 zinegotzi bakarrik hartzea eta beste hirurak beste zerrendari eskaintzea. Zertarako? udal gobernu bateratu horretatik elkarrekin lan egiteko.
- Epealdi honetan 4 bilera egin ditugu eskaintza hori posible egiteko baina ez du emaitzarik izan.
- Hori dela eta azaroaren 18ko plenoan hartu ditugu 2 kargu eta azkena urtarrilean hartuko dugu.
- Horrez gain, herriko jende gehiagorekin egon gara eta jaso dugu herritar askok eta askok duten nahia: aurrera begira jarri eta denok elkarrekin lan egitea.
- Zubilan honetan kokatuko dugu ZHKk bultzatu duen Zerainlab egitasmoa ere. Egitasmo honen abiapuntua aldebakarrekoa izan zen, eta horrek indarra eta potentziala kendu dio.
- Zubilana eta elkarlana beharrezkoa izango da egungo egoera hobetzeko eta lanean jarraituko dugu.

2.- AURRERA BEGIRA ANTOLAKETA

ANTOLAKETA

- Batzordeak, azpibatzerak
- Batzorde arteko bilera
- Auzo bilerak
- Herri batzarrak

- Herri mailan lan egiteko oinarria BATZORDEAK izango dira. Batzorde irekiak. Udaleko ordezkariak izango dira batzordeen arduradunak eta beraiek eramango dute batzordeek lan egiteko beharrezkoa den informazioa. Batzordeek gaiak aztertu eta gaien inguruko proposamenak landuko dituzte. Batzordeen bileren aktak jasoko dira. Eraikuntza kolektiboaren bidez lan egingo da,
- Zer esan nahi du horrek? denon artean gaiak aztertu eta denon artean irtenbideak proposatuz, batzuen eta besteen ideiekin ideia, irtenbide eta proiektu berriak sortzea.
- Batzordeek AZPI BATZORDEAK jarri ahal izango dituzte martxan berariaz gai zehatz bat lantzeko. Iraupen aldetik azpi batzordeak iraunkorrak edo ez iraunkorrak izan daitezke.
- BATZORDE ARTEKO BILERAK egingo dira, batzorde bakoitzeko 2 ordezkari eta udal taldeko 7 zinegotziekin. Bertan aztertuko dira batzordeetako proposamenak. Proposamenak adostasuna badute onartu egingo dira eta plenotik pasa behar badute zuzenean joango dira plenora onartzeko. Adostasunik ez badute, lantaldeetara bueltatuko dira batzordean ekarpenak kontuan hartuta gehiago lantzeko.
- Proposamen berriak batzorde arteko bileran adostasuna badu onartu egingo da, adostasunik ez badago eta eragin txikiko gauza bada, udal taldera pasako da berak erabakitzeko. Eragin handiko gauza bada: aurrekontu handia duelako, kezka handia sortzen duelako herritarren artean, herritarrek zuzenean erabakiko dugu HERRI GALDEKETAREN bidez.
- HERRI BATZARRA gure asmoa da urtean 4 batzar egitea. Batzarretan informazioa eta egindako lanaren berri emango da, batzordeetan landutakoa aurkeztu, ekarpenak jaso batzordeetan lantzeko. Udalaren informazioa eman eta herritarren informazioa jaso.
- AUZO BILERAK: Aizpea eta Barbarin. Auzoko beharrei erantzuteko aurrekontuarekin zer egin erabaki eta erabakiaren jarraipena egiteko.

ANTOLAKETA

- **Batzordeak:**
 - **Herri bizitza** (kultur etxe, kirola, hezkuntza, ...)
 - **Tokiko garapena** (Fundazioa, 1. sektorea, turismoa, partzoneria, ...)
 - **Azpiegiturak, ingurumena, zerbitzuak**
 - **Antolamendua** (eredua, herri zerrendaren hautaketa, ...)
- **Herri batzarrak:**
 - Urtarrila 17
 - Apirila 17
 - Uztaila 17
 - Urriak 16

Abenduan izena emateko epea, urtearekin batera, urtarrilean, lehen deialdia egingo da.

3.- EPEALDIKO EKINTZAK 2015-6-13tik

2015-11-29ra

Ekainaren 23a San Juan bezpera; urtero bezala haurren dantza, Uharka abesbatzaren emanaldia, su piztea eta ondoren mokadutxoa plazan.

SAN JUAN BEZPERA 2015- EMAITZAK	
OSTATU ETA MANDIOKO GASTUAK	140,00 €
BESTE GASTUAK	142,00 €
	282,00 €

Ekainaren 26a Mutiloako San Pedro festen hasiera, **Mutiloako jaitsiera;** plazan elkartu eta trikiti soinuekin Mutiloara.

Abuztuaren 13tik 17ra; Herriko festak: Gibel jatearekin hasi, haur jolas, festen hasierako pregoi, txekor jan, txistulari, bolatea, pilota partiduak, herri kirolak, asto karrera, herri afaria....

	IRTEERAK	SARRERAK
ABUztua 14		
UMEEN EGUNA	900,00 €	
TXIRRINDULARI-PROBA (SARIAK)	119,80 €	
TXEKOR JANA + GAZTA	1.882,00 €	1.819,00 €
SAGARDOA GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEA	324,00 €	612,00 €
ZOPILOTES TXIRRIAOS	3.093,01 €	
ERROMERIA	300,00 €	
ABUztua 15		
TXISTULARI saioa	150,00 €	
PELOTA TXAPELKETA (sariak)	121,02 €	
TXAKOLIÑA DASTAKETA	569,89 €	200,00 €
HERRI KIROLAK BAZLKARIA + MATERIALA	354,00 €	
HERRI POTEOKO TRIKITILARIAK	450,00 €	
TRAKETS	1.586,10 €	
ASTO KARRERA	509,70 €	
ABUztua 16		
GAZTA PROBA	240,40 €	
HERRI AFARIKO BERTSOLARIAK	525,00 €	
BOLA TXAPELKETA (sariak)	550,00 €	
DANTZADI TALDEA	1.100,00 €	
OROKORRA		
PROGRAMAK + KARTELAK	308,00 €	
BARRAKO EDARIAK ETA PINTXOAK	1.798,32 €	
SEGURA ZAHAR EGOITZA PASTEL TXIKIAK (5 DOZENA)	90,13 €	
EUSKAL HERRIA (804 BASO-MANTELAK -PLATERRAK E	885,04 €	
ARDOA 100 LITRO	206,06 €	
BARRAKO DIRUA		2.257,98 €
DIRULAGUNTZA		150,00 €
DIRULAGUNTZA PENDIENTE		50,00 €
	16.062,47 €	5.038,98 €
DIFERENTZIA		-11.023,49 €

Festen egitarau zati bat, ekaina aurretik hitzartuta zegoen, musika kontuak adibidez.

Irailaren 20an Azoka ekologikoa: Biolurrekin elkarlanean Fundazioak antolatua; astean zehar Goierri mailan tailer eta hitzaldiak eta igandean goizez azoka eta arratsaldean Japoniar ipuin kontalariak eta Patxi Perezekin erromeria.

	IRTEERAK	SARRERAK
BARRAKO JANARIAK ETA EDARIAK	1.077,84 €	
ERROMERIA PATXI PEREZ	1.279,40 €	
BIO LUR POSTUEN DIETAK + BI TAILLERRAK	1.697,60 €	
PUBLIZITATEA -HITZA-GOIERRI TB-EUSKADI IRRATIA	1.098,68 €	
KABLE GABEKO MIKROFONOaren ALOKAIRUA	76,23 €	
TRANSPORTES URTEAGA -POSTUAK ERAMATEKO	145,20 €	
BARRAKO DIRUA		1.545,05 €
DIRULAGUNTZA		950,00 €
DIRULAGUNTZA PENDIENTE		200,00 €
	5.374,95 €	2.695,05 €
DIFERENTZIA		-2.679,90 €

2015eko Urtekaria: 2014ko Andra Mari festetatik aurtengo abuztuaren 31ra arteko egunak kontutan hartuta osatu da. Berrikuntza bezala baita ere, herriko etxe guztietara ale bana dohainik banatu da eta erosteko aukera izan da Azoka ekologikoan eta oraindik ere Mandio tabernan, dendan eta Ostatur salgai dago edonorentzat.

	IRTEERAK	SARRERAK
INPRENTAKO FAKTURA	2.334,80 €	
URTEKARIA SALMENTA AZOKA EGUNEAN		60,00 €
DIRULAGUNTZA		1.460,00 €
DIRULAGUNTZA PENDIENTE		200,00 €
	2.334,80 €	1.720,00 €
DIFERENTZIA		-614,80 €

Urriaren 3an kultur etxeko batzarra: Bertan ordura arteko ekintzen balorazioa egin zen eta Kultur Asteko egitaraua landu zen. Batzarren parte hartu zuten Basarte Guraso Elkarteko ordezkaria, Liztormendi elkartekoa eta herritar batzuk. Ondorengo balorazio eta aipamenak egin ziren:

SAN JUAN BEZPERA:

Orokorrean balorazioa ona.

Berrikuntza edo hobetze aldera ideia ezberdinak bota ziren:

- San Juan sua gau aldean piztuz gero, festak beste itxura bat izateko aukera.
- Suaren inguruan dantza egitea bultzatzeko antortxa etab. erabiltzea.

MUTILOAKO JAITSIERA:

Balorazio baikorra egin zen eta urtero bezala egin zela aipatu zen.

2015eko ANDRA MARI FESTAK:

- Txirrindulari probaz gain, hurrek korrika saioa egiteko aukera izan zuten eliz bueltan.
- Haurren inguruko ekintzetan aipatu zen, guraso elkarteko guraso batzuk ez zutela parterik hartu haurren inguruko ekintzen lanetan, guraso asko oporretan zeudela, herriko egoeraren eragina izan zitekeela eta hurrengo urtera begira ze ekintza eta ze gauza ekarri aztertu beharko dela aipatu zen gurasoen partetik.
- Arratsaldeko haur eta gazteen emanaldian mutilen presentzia lortzen saiatu beharra.
- Festetako egun guztietan proba ezberdinen lehiaketa bat egitea.
- Txistulariak etxez etxeko bisitaz aparte herrian zehar txistua jo zuten.
- Musikaren inguruan, talde ezberdinen arteko lehiaketa egin litekeela proposatu zen.
- Musika taldeak koste handia suposatu zutela.
- Asto karrera: balorazio kaxkarrena izan zuen ekintza.
- Herri afariaren ondoren, mahaia batzuentzat azkarregi jasotzen omen dira eta hurrengo urtera begira, bakoitzak berea jasotzeko aukera eman litekeela aipatu zen.
- Herriko festen data ere oporren erdian dagoela eta jendea oporretan egoten dela ere aipatu zen.

URTEKARIA

Balorazio ona egin zen.

Portadarako lehiaketa egitea proposatu zen; bai urtekarirako eta baita festen programarako.

AZOKA EKOLOGIKOA

Goiza oso ondo. Arratsaldean jende gutxi. Jendea herri kirolak gehiago erakartzen duela. Hurrengo urtera begira, arratsaldean ekintzarik egon behar duen edo ez baloratu behar dela aipatu zen.

KULTUR ASTEAREN LANKETA

Begoña ongizateko udal langileak, Urriaren 25erako jubilatuen bazkari eta bertsolariak lotuta zituen, festetan sobratu zen txekor haragia prestatu eta herri bazkari bat egitea pentsatu zen eta tartean, asteen zehar hitzaldiak, haur marrazki lehiaketa, patata tortilla eta abar egitea pentsatu zen.

Urriaren 17tik 25era kultur astea:

URRIAK 17: Hip Hip Urri proiektuaren barruan, Zeraingo eta beste herritako haur eta gurasoak Burgomendiko buelta eta museoa ikusteko aukera izan zuten Irrien lagunak taldeko kide batekin.

URRIKA 18: Herritarrentzat bazkari irekia egin zen frontoian, Ostatuan festetan sobratutako txekor haragia gisatuta.

URRIAK 19tik 21ra: Beste herri ezberdinetako egoera eta esperientziak entzuteko aukera izan zen: Gabiria, Mutiloa, Igeldo eta Arabar kontzejuetakoa. Horrez gain EHUKo Parte Hartuz ikerketa taldeko Igor Ahedok hitzaldia eman zuen.

URRIAK 22: Erik Aznal Larrañagaren eskutik "Erroak komunitatearen lubakitik" ikus-entzunezkoa ikusteko eta bere Txileko esperientzia entzuteko aukera izan zen.

URRIAK 23: Haurren marrazki rallya izan genuen arratsaldean eta ondoren frontoian ikusgai izan ziren patata tortilla lehiaketa bitartean eta afari merienda egiten zen bitartean.

URRIAK 25: Jubilatutako eguna ospatu zen Ostatuan bazkalduz Patxi Etxeberria eta Angel Larrañaga bertsolariak lagunduta.

KULTUR ASTEA URRIA 2105 - EMAITZAK		
	IRTEERAK	SARRERAK
MANDIOKO AFARIA IGELDO-GABIRIA-MUTILOA ETA LEINTZ	189,40 €	
IGOR AHEDO E.H.U ko HITZALDIA	100,00 €	
JAVIER ARGOTE ARABAKO KONZEJUA HITZALDIA	100,00 €	
ERIK AZNAL	100,00 €	
HERRI BAZKARIA OSTATUKO GASTUAK	118,20 €	
HERRI BAZKARIA ONDARREKO GASTUAK ETA BESTE	63,96 €	
HERRI BAZKARIA POSTREA ETA OGIA LABEALDE IMAZ	146,85 €	
DIRU SARRERA HERRI BAZKARIA		105,00 €
PATATA TORTILLA -ARANBURU-LAURA-MAXICHINA	102,17 €	
PATATA TORTILLA -SARIA	75,00 €	
	995,58 €	105,00 €
DIFERENTZIA		-890,58 €

XaguArtea: Xagu Artea berriz herritarren artean dugu eta orain arte bezala herriko ekintzen eta elkarten informazioa emateaz gain, udal informazioa ere emango du.

IRTEERAK	
INPRENTA	-433,18 €

Aipatzekoak:

-Egingo diren ekintza ezberdinetan herriko aukera ezberdinak kontutan hartuko dira ekintza bakoitzaren beharren arabera: Ostatua, Mandio, Otatza, Oiharte... Baita ere Segurako dendak.

-Eta urtea bukatzeko ondorengo bi ekintzen gonbitea luzatzen da:

Euskararen eguna abenduaren 3an, osteguna, 16.30- 17:00ak aldean plazan elkartu eta haurren eskolako ekintza ikusi ondoren Antxaputxuko rotondako Zeraingo UEMAko letreroan argazkia atera eta abestu ondoren Liztormendi elkartean merienda izango da.

Eta Abenduaren 24ean gabon eskea eta Olentzero izango ditugu.

4.- UDAL KUDEAKETA

4.1.-HERRI ANTOLAKETA



UDALA

- Udalean 6 pertsona dabilta lanean:
- Idazkaria: % 20ko lanaldia (konpartitua Segura, Mutiloa, Partzoneriarekin).
- Zerainen astelehen eta asteazkenetan goizeko 11:15- 14:45 bitartean.
- Administraria: %100ko lanaldia.
- Aguazila: % 100eko lanaldia
- Ongizateko teknikaria: % 8ko lanaldia (konpartituta Zegama, Segura eta Mutiloarekin. Ostegunetan 12:00etatik aurrera.
- Lehen lauak langile zuzenak dira. Garbitzailea azpikontrataturik dago enpresa baten bidez eta arkitektoa autonomoa da eta
- Garbitzailea: % 50eko lanaldia. Arratsaldean.
- Arkitektoa: udalaren beharren arabera lan egiten du.

IBILGAIUEN -ONDASUNAK	71.700,00 €
OBRAKO ZERGAK	12.000,00 €
TASAK (ZABORRA-FRONTIOIA)	36.913,00 €
FORU FUNTSA	240.213,00 €
MANDIO eta OSTATUKO RENTAK	6.800,00 €
SARRERAK FINKOAK	367.626,00 €
DIRULAGUNTZAK	150.374,00 €
DENERA	518.000,00 €

ZERAINTZEN,S.A (APORTAZIOA)

30.000,00 €

DENERA

548.000,00 €

MAILEGUAK	38.700,00 €
LANGILEEN SOLDATA	109.562,00 €
ENPLEGU SUSTAPENA (BEKADUNAK)	5.000,00 €
HIRIGINTZA	15.226,00 €
OBRAK eta MANTENIMENDUAK	11.181,00 €
UR -ARGINDARRA-BEROGAILUA-HILERRIA	28.700,00 €
GARBIKETA	21.800,00 €
HONDAKINAK BATU, KUDEATU	25.750,00 €
ONGIZATEA + OSASUNA	5.550,00 €
HERRI ESKOLA	13.400,00 €
KULTUR EKIPAMENDUAK ETA SUSTAPENA	40.000,00 €
EUSKERA	11.200,00 €
EKINTZA SOZIO-KULTURALAK ETA FERIA	13.500,00 €
TURISMOA	22.500,00 €
ADMINISTRAZIO OROKORRA	29.101,00 €
GASTU FINKOAK	391.170,00 €
LANDA GARAPENA eta TURISMO	156.830,00 €
DIRULAGUNTZEKO GASTUAK	156.830,00 €
DENERA	548.000,00 €

ZERAINZEN, S.A

- Udalaren enpresa publikoa, jabe bakarra udala da (akzio guztiak udalaren esku).
- 2001ean sortu zen.
- Helburua: enpresa honen bidez udalak jarduera ekonomikoa egiteko gaitasuna lortu zuen. Lurrak kudeatzea (saldu eta erostea) zen helburua etxeak eraiki eta herritarrak bertan bizitzen gelditzeko.
- 15 urte ondoren zoritxarrez ez da helburua lortu. Udalak ez du etxebizitzarik sustatu.
- Enpresa honek 2 langile ditu, tekniko bat %100eko lanaldiarekin, 2 egun udaletxean (astelehena eta asteartea) eta 3 egun etxetik, eta aguazil bat % 50eko lanaldiarekin.
- Enpresak urtero langile horien gastu finkoak estaltzeko 80.000 € behar ditu.
- Batez ere Udalarentzat egiten du lan, udalak enkarguak egiten dizkio diru laguntzekin lotuta. Urte guzti hauetako gehienetan (lau ezik, 2007, 2008,2009, 2011) enpresak galerak izan ditu.
- Baina galera horiek ez dira galera bezala deklaratu, kontableki beste modu batean egin delako. Zergatik? Enpresa publikoak legez hiru urtez jarraian galerak badituzte itxi egin behar direlako.
- Oraingo egoera honakoa da: Zeraintzen S.A.k duen ondare bakarra , ERREGESOROk lurrak dira eta kontableki 526.000 euro (87 miloi pezeta) balio dute.
- Gure asmoa da enpresak duen helburuari heltzea, hau da, etxebizitzak sustatzea.

ZERAIN DEZAGUN FUNDAZIOA

2000. urtean sortu zen, eta horretarako herriko entitate batzuk ekarpen hauek egin zituzten:

- Zeraingo udalak 12.000 € eta aterpetxea usufuktoan (36.959 € tan baloratuta)
- Oa kultur elkarteak 7.512 €
- Zerainen lagunak xaguak 4.507 €

Helburua: udalerraren garapena sustatzea, hau da, kultur mailakoa soziala eta ekonomikoa. Urteko aurrekontua 30.000 € ingurukoa da. Fundazioak Aldabe Kooperatibarekin kontratu bat dauka Zerain Paisaia Kulturalaren kudeaketa eta turismoaren sustapena garatzeko. Kontratu hori 4 urtekoa da eta 97.600 € koa eta handitu daiteke turismorako diru laguntzak lortuz gero.

Fundazioaren urteko sarrerak:

- Udalak ematen dion diru laguntza 12.000 €
- EJK ematen duen diru laguntza (Iturbask) 10.000 €
- Aldabe kooperatibatik azpiegituren erabilerarengatik 6.000 € ordaintzen du. Azpiegitura horiek dira: herri museoa, diaporama, kartzela, Larraondo zerrategia, burdiñaren mendia, aterpetxea, Mandio denda.
- Patronoak 1.840 €

Horrekin finantzatzen du urtero:

- Zerain Paisaia Kulturalaren kudeaketa eta turismoaren sustapena garatzeko (Aldabe) 24.400 € jasotzen du. Horietatik Turismo bulegoa irekita mantentzeagatik Iturbasketik 10.000 €. Eta beste 14.400 € (1.200 € hilero) Fundaziotik.
- Azoka ekologikoa 2.840 €
- Xagu Artea 2.600 €

OA KULTUR ELKARTEA

1999. urtean sortu zen herriko kultur ekintzak antolatzeko, herriko festak, Kultur Astea, urtekaria eta bestelakoak.

Urteko aurrekontua 20.000 € ingurukoa da.

Elkartearen urteko sarrerak:

- Auzolanean egindakotik (barra....) 5.000 €
- Publizitatea eta abar 200 €
- Urtekarirako diru laguntzak 1.800 €

Udalak ematen dion diru laguntza 13.000 €

4.2- KANPOKO ORDEZKARITZAK

Udal txikia da Zerain baina beste guztiak bezala hainbat erakundetan parte hartzen dugu. Interesgarria da denok jakitea nor den ordezkaria, egindako bilerak eta dagoen informazioa.

Kanpo ordezkaritza

ERAKUNDEA	ORDEZKARIA	BILERAK	LANDUTAKO GAIAK
GOIMEN	Arantza	6	Gogoeta prozesua, batzar orokorrean zuzendaritza aldaketa, gure proiektuak
GOITUR	Arantza	2	Batzar orokorrean Zuzendaritza aldaketa, erakundea ezagutu, gure proiektuak
GOIEKI	Arantza	2	Batzar orokorrean Zuzendaritza aldaketa, gizarte arloa
GOIERRIKO HERRIEN EKINTZAK	Arantza	0	
GOIERRI FUNDAZIOA	Arantza	0	
TOBERA MUSIKA ESKOLA	Arantza	2	Zuzendaritza bileran gestio gaiak, udal guztiekin erakundea ezagutu eta finantziarioa
UEMA	Arantza	2	Batzar orokorrean zuzendaritza aldaketa, gure proiektuak
		14	

Kanpo ordezkaritza

ERAKUNDEA	ORDEZKARIA	BILERAK	LANDUTAKO GAIAK
SASIETA	Amaia	8	Batzar orokorrean zuzendaritza aldaketa.
BEHEKO INDUSTRIALDEA	Amaia	1	Batzar orokorrean zuzendaritza aldaketa
GIPUZKOAKO UR PARTZUERGOA	Amaia	2	Batzar orokorrean Zuzendaritza aldaketa, obra txikiak
HAURRESKOLAK PARTZUERGOA	Amaia	0	
TOLOSAKO HILTEGIA	Amaia	0	
		11	

Kanpo ordezkaritza

ERAKUNDEA	ORDEZKARIAK	BILERAK	LANDUTAKO GAIAK
PARTZONERIAK	Joxe Mari, Jabier	8	Junta aldaketa eta gestioa. Belardiak eta basoak batzordean J. Mari eta ehizakoan Jabier. Urbian San Ignazio jaia, hitzaldia Zegaman
AIZKORRI ARATZ ELKARTEA	Joxe Mari	7	Mozioa, alegazioak, elkartearen sortu, bilera irekia Zegaman
		15	

4.3-BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

Haur eskola, Herri eskola eta Guraso elkarteak osatzen dute Hezkuntza Proiektua.

Hasieratik aurkitu genuen Haur eskola, arazo larri batekin. Ixteko arriskuan zegoen 2 matrikula zituelako. Gaur egun ez ixteko 3 matrikula behar dira.

Zaintzaile bat kendu zuten eta honek ordutegia murriztea zekarren. Ordutegia murrizterakoan familia batek lana eta familia kontziliatzeko arazoak zituenenez arazoari aurre egitea erabaki genuen.

Bilera bat egin zen 2014-2015 urtean jaiotako ume guztien gurasoekin (famili bat ezik) eta honakoa adostu zen:

- Haurreskolako zerbitzuaren beharrik ez zuen haur bat matrikulatzea udalak gastua bere eginez.
- Zaintzaile bat kontratatzea ordutegia luzatzeko.
- Kudeaketa guraso elkarteak egitea eta kostua Udalak bere gain hartzea.

	UDA	IRAILA	URRIA	AZAROA	ABENDUA	2015
UME BATEN MATRIKULA	91,00 €		160,00 €	160,00 €	160,00 €	571,00 €
ZAINTZAILAREN NOMINA		226,92 €	340,38 €	340,38 €	340,38 €	1.248,06 €
						1.819,06 €

Eskolan zentratzen bagara, aurtengo kurtsoaren hasiera gogoz eta proposamenez betea izan da.

- 1.- Maixune goiko pisua psikomotrizidadeko gela bezala erabiltzeko baimena eskatu zuten eta astelehen eta astearte goizetan erabiltzen da.
- 2.- Liburutegia.
- 3.- Apaiz etxean labe bat jartzea, bertan sukaldaritza tailerrak egin ahal izateko.

UHARKA ABESBATZA

Orain dela gutxi bildu ginen eta komentatu digute ze ekintza egin ohi dituzte herrirako eta hauek dira:

- San Joan bezperako ekitaldia
- Festetako meza nagusia Andra Mari egunean
- Gabon gaua, Olentzeroren etorrera
- Beste edozein ekitalditan ahalmenen arabera

Udaletxeak babesten du bere elkarteak

- Santa Zezilia eguneko afaria
- Partituren fotokopiak

LIZTORMENDI ELKARTEA

- Uztailaren 1ean juntako kideekin elkartu ginen eta elkarteko egoera ekonomikoa zaila dela eta eraikina egoera kaxkarrean dagoela jakinarazi ziguten. Elkartearantzat eraikin berria egiteko Xootegi erabiltzea proposatu digute.
- Arkitektoak horrelako obra bat egiteko arazorik ikusten ez duenez orain bazkideen txanda izango da ideiak jaso eta proposamen bat ekartzeko batzordera.

HIRIGINTZA

Kontsultak eta lizentzia eskaerak: herriko arkitektoak herritarrek egiten dituzten kontsultei erantzun die, soluzioak bilatuz. Lizentzia eskaerekin txostenak egiten ditu. Epealdian 5 kontsulta urbanistiko egin dituzte herritarrek.

Aurretik zetozen hainbat gai kudeatzen ari gara

- Mendarteko betelana:

2010eko-09-29 eman zion baimena udalak (EJ eta Urak 4 urterako baimena eman ondoren)

2014-07-21 luzapen tramitea eta ur agentziak baimena 2019ra arte. Lurjabeei galdetu gabe.

2015eko uztailaren lur jabeen kezka lur asko sartzen ari zelako, hasierako proiektua errespetatzen ari ote ziren. GFA errepideetakoek eskatzen duten aldaketaz ohartzen gara. Bi bilera lur jabeekin, bilerak GFA, ur agentzia eta Iturriozekin.

Gaiaren gainean gaude lehenbailehen betelana bukatzeko, lur jabeekin adostutakoa betez. Bukatu ondoren errepidea konponduko dute.

- Olabideren obra ere soluzio bidean dago.
- Errementeri: hutsik dago, giltzak udalean daude. Txostena eskatu genion arkitektoari eta txostenak dio baserria oso egoera txarrean dagoela. Urrian frontoiko trasteak bertan sartu genituen biltegi bezala aproposa izan zitekeela pentsatuaz baina txostenak dio ezin dugula biltegi bezala erabili eta are gutxiago bizitzeko. Inspekzio teknikoa egingo diogu.
- Errementeri ko lurrari dagokionez, legearen arabera eta plenotik pasata kontratua egin dio udalak Joxe Mari Apaolazari lurra erabiltzen jarraitzeko.
- Konponketa eta obra txikiak:

Herritar guztiei gutuna bidali genizuen eta horren ondorioz hainbat proposamen jaso dugu. Horietako batzuk egiteko errazak dira eta aurrekontu minimoa behar dutenez aguzilak ari dira egiten.

Bestelakoak

Zerralan:

- Zerrategi hau bazkide pribatuena eta bailarako udalena da. Goimenen laguntzarekin egokitu egin zen duela urte gutxi.
- Zeraingo udalak Donostia 2016 eta Albaolari eskaini zion itsasontzia egiteko erabiliko zen egurra mozteko, bazkideekin eta beste udalekin ondo koordinatu gabe.
- Zerrategiak ez du Europako arautegia betetzen eta horregatik ez zen helburu horretarako erabili. Gestio honen ondorioz, zerrategia erabileraz kanpo geratu zen eta gaur egun horrela jarraitzen du. Herritarrek berriro martxan jartzeko beharra eta nahia dagoela adierazi digute. Goimenekin gestioak egin dira bazkideen bilera deitu eta lehenbailehen berriro martxan jartzeko asmoz.

Siriako errefuxiatuak:

- Uda honetan sortu da siriar errefuxiatuen krisia Europan.
- Horren aurrean udalak mozioa onartu du eta Aldundia eta EJra bidali du eta prest agertu da laguntzeko.
- Erakunde handiek hartu dute horren koordinazioa eta haien menpe gaude urratsak emateko. GFAk laguntza eskatu du: harrera familiak behar dituzte.
- Herritarrek hainbat proposamen egin dituzte eta batzordean gaia lantzen denean aztertuko dira.
-

Jaio berriei ongi etorria eta hildakoei agurra:

- Ekainetik martxan den inizatiba txiki berri bat da.
- Jaiotzen diren haurrei ongietorria emateko lore sorta bidaliko die udalak zeraindar guztien partetik.
- Hiltzen direnei ere eskerrak eman eta agur esateko zeraindar guztien izenean lore sorta bidaliko zaie.

Protokolo sozio sanitarioa:

- Aurreko agintaldian landutako gaia da, aste honetan sinatu dugu Zumarragako ospitalean protokolo hori.
- Protokoloaren helburua da behar sozialak eta behar sanitarioak dituen pertsonari erantzun bateratua eta koordinatua ematea gizarte zerbitzutik eta Osakidetzatik.

4.4- PROIEKTUAK

BIOMASA

Proiektu honen aurrekarietara joanez gero, 2010.urteraino atzera egin beharko genuke. Urte horretan azterketa bat egin zen Beizama eta Zerainen biomasa erabiltzeko aukerak aztertzeko. Ondoren diru laguntza lortu zen proiektua idazteko eta ORMA enpresak izan zuen lan hori egiteko ardura. Proiektua hiru fasetan banatu zen, hona hemen faseak:

- 1. Fasea: Galderak kokatzeko tokia prestatu
- 2. Fasea: Galderak instalatu
- 3. Fasea: eraikuntza publikoetara erregaia eramateko obra zibila.

Proiektu honetan ez da aurreikusten etxe bizitza partikularren eta biomasaren instalazioaren arteko konexiorik. Horrez gain Zeraingo biomasaren erabilpena ere ez da proiektuan kontuan hartzen.

Diru laguntzen onarpenak baldintzatuta aipatutako lehen fasea 2014ko azaroan hasi zen. 2015eko otsailean obra gelditzea erabaki zen bukatuta egon ez arren.

- Ekainak 22.- Jakobakin lehen kontaktua eta informazioa.
- Ekaina bukaeran.- Aurreko Alkatearekin , (Haritz Iztueta) Bittor Orozekin egoteko gomendioa , proiektuak bi arazo nagusi ditu:
 - 1.- Bukaera epea. irailaren 30ean 3 faseak bukatuta egon behar dute.
 - 2.- Diru arazoa. Ez dago finantziatorik proiektu osoa egiteko.
- Uztailak 6 , Jakobak Bittor Orozekin hitzordua lortzen du.
- EVeren diru laguntza eskatzeko aukera zabalik dago, baina udal teknikariak finantziakoa argi ikusi arte ez eskatzea gomendatzen du.
- Uztailak 17, Bilera Gasteizen Eusko Jaurlaritzako ordezkariekin. Bittor Oroz eta bere zuzendarietako bat, Arantza, Amaia eta Jakoba.
- **Ondorioa**
Ezin da erabili Hangarreko dirua proiektu honetan eta zuritzeko epea ezin dela luzatu esaten digute. Malgutasuna ematen digute zuriketa egin eta beste hilabete eta erdi edo izango dugula teknikoak obra ikustera pasatu arte.
- 2. Eta 3. Faseetarako aurrekontuak eskatzen ditu Udalak.
- Kutxako zuzendariarekin bildu ginen eta diru laguntzaren dirua aurreratzeko arazorik ez duela Kutxak esaten digu.
- Uztailak 27, Udal arkitektoa eta LAN ROC enpresarekin bilera jakiteko zein den 1. faseko egoera eta **ondorioa hau da:**
 - 1. Proiektuan parte hartu duten bi aldeek koordinazio falta nabaria da.
 - 2. Udalak ez du beharrezkoa zen erabakirik hartu
 - 3. Biomasa zentroaren obra zibilak ez du exekuziozko proiekturik, aurrekontu osoarekin eta fasetan exekutatzeke planik.
 - 4. Bukatzeko lehen fasea egiteko aurrekontua 30.000 €koa da.
 - 5. Udal arkitektoak ez du inoiz ORMAren proiektua osorik, ikusi duen bakarra 1. Faseari dagokion partea izan da.
- Uztailak 27, Udal teknikariak erabaki du EVEko dirulaguntza martxan jartzeko momentua dela, baina zoritxarrez EVerekin harremanetan jartzerakoan dirua bukatu dela esan ziguten. Aurreikusitako diru laguntza (168.000€) ezin eskaturik geratu ginen.

- Uztailak 28, Aitzol Telleriaren ekimenez bilera antolatu zen proiektuarentzat inbertitzaile posible bat zegoelako. Bileran bera eta beste hiru pertsona egon ziren eta proiektuaren 2. eta 3. faseak ahalbideratzeko aukera desberdinak jarri zituzten mahai gainean. Bileraren ondoren proiektua bidali zitzaien aurrekontu bat prestatu zezaten baina ez zuten bidali.
- Abuztuak 13, GFAko tekniko batekin bildu ginen, honek Beizamako udalarekin biltzeko aholkua eman zigun, hauek Zerainekin batera hasi baitziren biomasaren ideiarekin. Beizamakoek ordea, martxan jarri zuten proiektua. Esan ziguten Beizamako Udalak biomasa instalazioa kentzeko diru laguntza eskaera egina zuela Aldundian bertan.
- Abuztuaren 20ean Beizamara joan ginen eta bertan udal ordezkariekin batzartu ginen. Diputazioak egindako ikerketa bat erakutsi ziguten, ikerketa honek baieztatzen du ur beroa garraiatzerakoan %65eko energia galerak daudela, eta horrek Beizamaren kasuan 8.000€ko galera egiten zuela urtero.
- Abuztuak 25 GIROA VEOLIA enpresarekin bildu ginen, enpresa honek horrelako sistemak kudeatzen ditu eta proposamen bat egiteko konpromisoa hartu zuen arren, oraindik ez dugu ezer jaso.
- Zeraingo basoetatik ateratako biomasa erabiltzea ezinezkoa dirudi epe labur eta ertainean, egin ditugun gestio guztietan jaso dugun informazioa kontuan hartuta. Helburu hori lortzeko egin beharreko inbertsioak handiak dira, handiegia eta horregatik ez du merezi.
- Irailaren hasieran, proiektuari buruzko txostena egiteko eskatu genion udal idazkariari bertan proiektuaren jarraipenari buruz iritzia emateko finantziarioari dagokionean.
- Irailak 17, egindako txostena aurkezten digu, bertan proiektua burutzea ezinezkoa dela dio arrazoi hauengatik:
 1. Epeak . Proiektuaren dimentsioak kontratazioa publikoa egiteko prozesu bat martxan jartzea eskatzen du, Buletinean publikatuz eta abar eta hori guztia egiteko denborarik ez dago.
 2. Finantziarioa. Proiektua egiteko zailtasun ekonomikoa. Finantzatu beharreko kopuruak udalak zorpetzeko duen kopurua askorengatik gainditzen duelako.
 3. Kezka teknikoak. Behin martxan jarrita sistemak izango duen bideragarritasun ekonomikoa ez da argi ikusten.

Aipatutako guztia kontuan hartuta, irailaren 30ean HAZIko diru laguntza ez dugula erabiliko jakinarazten diogu Jaurilaritzari. Aipatu behar da diru laguntza hori dela proiektuaren 2. Eta 3. faseak finantzatzeko irailera arte lortutako bakarra.

- Foru Aldundiari eskatutako 120.000€etatik azkenik 14.000€ onartu zituzten, honek azalarazten du proiektuarekiko konfiantza falta. Diru laguntza hau ez dugu erabiliko eta hala jakinarazi diogu Aldundiari.

PROIEKTUA BIOMASA AURREKONTUA 510.971,63 €		
	ESKATUTAKOA	DIRULAGUNTZA
2014 EJ BIOMASA	100.000,00 €	0,00 €
2015 GFA BIOMASA	120.000,00 €	14.741,81 €
2014 EJ-HAZI BIOMASA	510.971,63 €	150.378,81 €
		165.120,62 €
UDALAREN APORTAZIOA		
2014 GFA 2000 BIZTANLEA (BIOMASA)	36.000,00 €	29.070,64 €
2015 GFA 2000 BIZTANLEA (BIOMASA)	31.056,06 €	17.794,82 €
		-298.985,55 €
E.V.E DIRULAGUNTZA (ESKATZEKO ASMOA) (168.000,00 €)		
UDALAREN APORTAZIOA (-130.985,55 €)		

ORAINGO EGOERA- 1º FASEA BUKATU GABE

• DIRULAGUNTZAK:	46.865,46 €
• - Foru Aldundia 2014.....	29.070,64 €
• - Foru Aldundia 2015.....	17.794,82 €
• GASTUAK:	-56.428,15 €
• - C. Echaide.- 1. zatia.....	-36.500 ,00 €
• - C. Echaide.- 2. zatia.....	-11.495 ,00 €
• - Txomin San Martin. Geoteknikoa.....	-1.983,80 €
• - Lanroc.- Proiektua.....	-3.224,70 €
• -Ana Ezeiza Ark	- 3.224,65 €
 • ORAINGO ZORRAK.....	 -9.562.69 €
• BUKATZEKO AURREKONTUA	-30.000,00 €
GUZTIRA.....	-39.562,69 €

AURREKO AGINTALDIKO DIRULAGUNTZAK

PROIEKTUA	BIODIBERSITATEA	AURREKONTUA	155.809,28 €
		DIRULAGUNTZA	
2013 EJ	INGURUMENA BIODIBERTSITATEA	58.581,63 €	JUSTIFIKATUTA
PROIEKTUA	BIODIBERSITATEA	AURREKONTUA	142.717,80 €
		DIRULAGUNTZA	
2014 GFA	Agenda 21 BIODIBERTSITATEA	60.000,00 €	JUSTIFIKATUTA
PROIEKTUA	HANGARRA	AURREKONTUA	213.462,73 €
		DIRULAGUNTZA	
2014 EJ	TRENEKO HANGARRA	127.019,15 €	RENUNTZIA
PASAI EKINTZA PLANA		AURREKONTUA	34.485,00 €
		DIRULAGUNTZA	
2014 EJ	PAISAI EKINTZA PLANA	25.650,00 €	JUSTIFIKATUTA
BURGOMENDI		AURREKONTUA	15.000,00 €
		DIRULAGUNTZA	
2014	GOIMEN FUNDAZIOA - BURGOMENDI	6.468,00 €	JUSTIFIKATUTA
LUR MUGAKO DIGITALIZAZIOA		AURREKONTUA	9.226,00 €
		DIRULAGUNTZA	
2014	GOIMEN LUR MUGAKO DIGITALIZAZIOA	5.074,00 €	JUSTIFIKATUTA
PIPIEN TRATAMENDUA		AURREKONTUA	28,453,00 €
		DIRULAGUNTZA	
2014	EJ.EREIN PIPIEN TRATAMENDUA	25.640,00 €	JUSTIFIKATUTA

BIODIBERSITATEA

Biodibertsitatea lantzeko bi diru laguntza jaso dira, bat Eusko Jaurlaritzakoa eta bestea Gipuzkoako Foru Aldundikoa. Xedea da herri lurak zaindu, mantendu eta bertako zuhaitzak landatzea

AIZPITAKO MEATEGIKO TRENARAKO HANGARRA

Proiektu honen aurrekontua 213.000€koa zen baina 127.000€ko diru laguntza lortu zen. Aurrekontu guztiaren %27a,beraz, aurrekontua murrizten bazen, onartutako diru laguntza ere proportzioan murriztuko zen. Proiektua egin ahal izateko diferentzia, 86.000 € udaletik jarri behar zen baina ez zegoen udaleko aurrekontuan partidarik proiektu honetarako eta ezta dirurik ere. Hori dela eta, laguntzari uko egitea erabaki genuen.

Bere garaian planteatu zen diru laguntza hau Biomasaren proiektuan erabiltzeko aukera, baina EIn kontsulta egin ondoren ezezkoa esan zuen.

ZERAINGO PASAI EKINTZA PLANA

Diru laguntza hau 2014ko abuztutik dator. Proiektu honen helburua Zeraingo Paisaia Kulturalaren ekintza plana lantzea zen hasieratik herritarren parte hartzearekin. Proiektua 2015eko maiatzean jarri zen martxan ia urtebete beranduago, eta lehengo txostena egin zen gero herritarrekin aberasteko.Ez da taxuzko parte hartze prozesurik egin baina, ekintza planaren dokumentua bukatuta dago.

BURGOMENDI

Diru laguntza 2014 ekainean lortu zen eta 2015 uztailera arte ez da jarri martxan , berriz urte bat pasatu eta gero heldu zaio lanari. Bilera batzuk egin dira lurjabeen, artzainen eta Fundazioaren artean. Akordio bat sinatu da, lortu den diruarekin itxiturak berritu dira eta beste konponketa batzuk egin dira, zoritxarrez berriz ere denborarekin oso larri ibili dira eta orain artzainak eta aguazilak korrika eta presaka dabiltza lanean dena bukatzeko eta teknikoa etortzen denean proiektua ontzat eman dezan.

DIGITALIZAZIOA

Diru laguntza hau 2014ko ekainean lortu zen, lur publikoko mugak zehaztuta eta nondik doazen jakiteko gero plano batean ondo kokatzeko, berriz ere azken momentuan justifikatu da. Hurrengorako lur pribatuak sartzea gustatuko litzaiguke, hala jaso genuen herri programan.

KULTUR ETXEKO PIPIEN TRATAMENDUA

Diru laguntza hau 2014 bukaeran onartua izan zen. 25.640 € Kultur Etxean pipien kontrako tratamendua egiteko. Uztailean egin zen eta tratamenduak 10 urteko bermea dauka. Asteburu honetan medikuaren kontsultan eta diaporama dagoen tokian berriro egin dute tratamendua oraindik pipiak zeudelako.

DIRULAGUNTZA ESKAERA BERRIAK

MUSEOTAKO LAGUNTZAK

Diru-laguntza hau kartzela berritzeko eta informazio orriak hizkuntza desberdinetan jartzeko eskatu da. Arazo informatiko baten ondorioz laguntza azkeneko egunean posta elektronikoz eskatua izan zenez EIn Kultura Departamentuak ez du onartu.

Diru-laguntza berriak: agintaldi honetan eskatutakoak direnez oraindik ez dago ebazpenik.

IRISGARRITASUNA

Diru laguntza honekin 2004ean egin zen irisgarritasun plana eguneratu eta hobekuntzak egiteko izango da.

BIODIBERSITATEA

Beste urteetako proiektuen jarraipena.

EREIN

Laguntza honetan 5 proiektu desberdinetan eskatu ditugu.

- Hainbat ekipamendu. Ostatuan eginiko inbertsioak eta Mandioan egiteko dauden inbertsioak. Liburutegia berritzeko inbertsioa, bai eskolak eta baita herriak ere erabil ditzan eta kirol jarduerarako ekipamendua.
- Etxebizitzaren ikerketa, plan partzialak egiteko.
- Azpitako interpretazio zentroko igogailua homologatzeko konponketa.
- Ostatuako estalpea.
- Komun publikoak plazan.

GALTZADA

Galtzada berritzeko eta bertako arazoak, hau da, zubiak eragiten dituen luiziak konpontzeko diru laguntza eskatu da. Ideia bide guztia berritzea izango litzateke, baina hasteko Olabideko bidegurutzera arte egitea pentsatu da.

Proiektu honek auzolana aurreikusten du.

PROIEKTUA MUSEOA		
	ESKATUTAKOA	
EJ MUSEOA	10.800,00 €	EZ ONARTUA
PROIEKTUA IRISGARRITASUNA PLANA		
	ESKATUTAKOA	
EJ IRISGARRITASUNA	5.272,05 €	
PROIEKTUA BIODIBERSITATEA		
	ESKATUTAKOA	
EJ BIODIBERSITATEA	73.606,75 €	
PROIEKTUA EREIN -GOIMEN		
	ESKATUTAKOA	
2105 EJ EKIPIAMENDUA	15.916,67 €	
2105 EJ ETXEBIZITZAKO IKERKETA	15.527,05 €	
2105 EJ AIZPITAKO IGOGAILUA	5.346,35 €	
2105 EJ OSTATUKO ESTALPEA	52.520,22 €	
2105 EJ KOMUN PUBLIKOA	12.768,19 €	
PROIEKTUA KALTZADA		
	ESKATUTAKOA	
2015 EJ PATRIMONIOA-KALTZADA	289.412,32 €	